

Sabino Auzmendi Arratibel

*Ataun,
Gipuzkoa
(1926)*

Aurkibidea

Biografia



Ataungo San Martin auzoan jaioa, Urdangarintxiki baserrian. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama San Gregoriokoa, Larruntza baserrikoa. Hamar senidetan seigarrena, hamasei urterekin hasi zen Caf lantegian lanean. Ehizarako afizioa izan du beti, baina handiagoa bertsolaritza eta literaturarako. Poesia asko idatzia da, eta bertso jarriak milaka izango omen ditu.

Zintak

ATA-014

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2011-08-10
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Umetako jolas originalak

- **Erref:** ATA-014/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:05:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Baserrian, pilotan jolasten aritzen ziren. Euria egiten zuenean, bideko zuloetan sortzen ziren ur-korronteetan, zotz meheak jarri, eta lasterketak egiten zituzten, zein zotz lehenengo iritsiko. Plottean jolasten aritzen ziren. "Tres en raya". Txori-habia bila joaten ziren udaberrian.</p>

Transkripzioa

- Eta esaten dezunian baserri inguruan ibiltzen ziñatela jolasian?
- Bai.
- Ze, oain bezela jostaillukin ta futbolian ta hola?
- Ez, pelotan. Etxe paret..., etxe zean, estalpea ba zan han, goitik ohola ta behetik hesie pertikakin'e, ta han ibiltzen giñen, zure aitte zana ta, "galtzaile fuera", han jokutzen gendun eta... lurre sekoea zeonen, harri koskorren sake eitten bazun juten zan pelota, ta hoi izan zan gue zea, ta geo, ebia itten zunen, bide, baserriko biden baakizu, gurdik, nola arrastua uzten dun, ta ude han juten zan ta gu karreristak, txotxak holakok ein, izena jarri ta haik bialdu ta zein aurrena aillegatzen zan meta.
- Nola eiten zenduen hoi? Nola, nola?
- Holako txotx mehek ebaki, ttikik, eta han, korriente hartan jarri, danak batea, korredorek bezela eta zein ailleatzen zan aurrena beheko muga, harrek irabazi ta... Ta geo beste... geo, zea izaten gendun beste jolasa, izaten gendun, "plottea" esaten zitzaion, intxaurrekin, o harrikin'e eitten da. Txokoa jarri, han jarri batzuk ta bestekin ateatzen haak, handik. "Tres en raya" ere bai, esaten deu ba, uain, "tres en raya", hoi eitten gendun guk. Intxaurrek jarri han illaran eta jarri zortzi pauso o hola ta bota ta zenbat ataetzen zittun, beretzako. Ta han bi txokote o hola irabazi ezkeo, txokotea lau intxaurrei esaten giñun. Lau intxaurre zienen, txokotea. Bi irabazi ezkeo, jo, jornal haundia zan ordun. [...] gue jolasak, [ta geo] txori-hapi bila, udaberrin. Galtza majo hausi, izterrak-eta majo urrau, arbolatan gora iyota ta sasiitan-ta. Hoik zien...

2. Soinua jotzen ikasten

- **Erref:** ATA-014/004
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:05:49. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>14-15 urte zituztela, Aldarreta baserrira joaten ziren. Hango mutiletako batek soinua jotzen zuen, eta Sabinok esaten zion zer kanta jo. Hala, pixkanaka, Sabino ere soinua jotzen ikasten aritu zen, baina ez omen zuen ganoraz ikasi, denborarik ez zuen eta. Gerora, soinua erosi zuen, soldadutzara joaterako.</p>

Transkripzioa

-Ta gero pixka bat zea, gehixo igual pixkat hazitzen o hazi o..., hamalau, hamabost urte inguru hortan ta Aldarreta juten giñen gero, baserrie hor zan. Zeatik baserri... uain luizik botata dao, zuk baakizu, eta han zien bi mutil, bat zaharrena ez non nik ezautu ibiltzen, bestea pixkat bai eskola etortzen, baiño, gero gerau zan. Ba, hue aritzen zan, hasi zan, soiñu jotzen. Eta ni pixkat kalea, pestata ta juten hasi nitzenen beti soiñujolen ondón eoten nintzen, bertsolaria o soiñujole ondón, ta nik ematen nion piezan bat o beste, ikasita. Memoria bastante zea nun. Baiño gero esan zin: "bai, ta hau nola ikasi behar diat nik?". Klaro, pieza haik zien pianoko soiñuikin jota, ta harrek trikitixa zeuken. Eta nola, nundik hasi? Klaro, gaur bezela izan [balin] nik beittuko nion holako botoitatik hasten da hau, bi-hirugarrena, laugarrena o... Baiño pianokonak zien ta beak inbentau behar zon ta bere modu batea aritzen zan /aitzentzan/ hue´re ta geo esaten zin: "hi, joko duk /jokouk/ soiñua!", ta "nik ez det soiñuik jotzen; nik nola joko det...", "bai, bai, hik joko huke!". Eta hala hasi nintzen pixka bat, baiño ez nuen ikasi, ez nun... Haruntza ez nintzen juten, lana ein behar nun, fabrika jun behar nun, baserrin lana ein behar zan ta. Gero eon nintzan gaiñea jo bate jo bae. San Gregorion ibili nintzen bi urten, e! hor Arantzamendin erromeri eitten zan udan, mendi gaiñen eta...

-Non eiten zan?

-E?

- Arantzamendi?

- Arantzamendi zon, bai, Arantzamendiko zalaie esaten gendun. Ta han´e lehen ibiltzen zien soiñujoleak erretirau zian, batzuk ezkondata ta bestek e, kanpoa junda ta... [...] soiñue baneuken eta, eiña neuken nik soiñue, lehen esan dean baserri hortako zea, ezkondu zanen hango beste semea, Joxe Juakin, harren bodan izan zan soiñujolean soiñue eosi non gero.

-Eosi ein zendun?

- Bai, uda... Iruntzanberriko Joxe Manuelena; hiru illarakoa. Zortzirehun pezta pagauta garai hartan, e! Hoik urtek die, e! Soldauska juteako eta asike soldau, ia hogeit urtekin jun nintzan eta... Baiño ez nun ikasi, ez nun ikasi ezerre, baiño, ba... Gaiñea behar du oidoa´re ona behar du eta aittu ein behar da gaiñea.

3. Soinua jotzearen onurak

- **Erref:** ATA-014/006
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:10:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Ezkondu ostean, hamar urtean ez zuen jo soinurik. Gerora, bost urtez bai. Soinua jotzea ona omen da eskuentzat eta buruarentzat.</p>

Transkripzioa

- Geo eon nintzen, e, hamabost, geo ezkondu ein nintzen Paxkiñanea, baakizu, zure lehengusuekin, eta han holako ambiente haundie ez zon soiñuako´re, eta hoi ambientea behar da gaiñea. Eta hamabost urten, hamar urten, ikuittu be euki non kajan sartuta eta han eon zan. Gero pixka bat hasi nitzen eta geo beste bost urten´e bai, eta gero ya honea etorri nintzen ta hemen ya ambientea, ba, andrek ez zon kasoik eitten baiño ni [nerea] neon, hemen jartzen nitzan ta kalea beida ta, benga ta, behin eo baiño gehio aitzen nitun hor saltatzen, e! Geo gañea esan zian, e, eskuntzat´e ona zala [... jartzeko] eta Donostin´e, alabana jun nintzen behin ta han apeaderoa lagundu zin Grosen ... ta han emakume batez saludau zon eta zin: "hau, atte, nee... Tolosakoa da eta nee lantokiko kutxan eitten do /eitteo/ lana ta gizon baten andrea da honek piano jotzen do" ta nik esan nion: "nik´e joko nuke, baneki!". Ta "zuk soiñua jotzen dezu /jotzezu/ ba" alabak esan zin-ta, "soiñua jotzen al dezu?" esan zin ta, "aitzen naiz, hotsa ateratzen, baiño, ez dakit ezer... eskuntzako ta ona da..." "Bai, eskuntzat ona da, baiño honentzat da ona, e! Honentzat! Zu segi ahal dezun arten, zeatik horrek muiltuarazi itten do hoi dana ta." Hola die kontu hoik...

4. Anaiaren ezkontzako soinu-jotzaile

- **Erref:** ATA-014/008
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:14:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Anaia ezkondu zenean, Isidro Larrañaga zen soinua jotzera joatekoa; baina gaixotu egin zen, eta Sabinok jo zituen pieza batzuk orduan.</p>

Transkripzioa

- Anaie Lazkaokoa ezkondu zanen, soiñu-jolea zuen zeauta, koiñatok einda, han barriokoa zuen, Isidro Larrañaga. Larrañaga badau Tolosan, zea haundie dauke horrek, orkesta haundie soiñujoleena. Ta hoi laune zuen baserrikok, illara beste [...]. Eta hoi hartu zuen ekartzeko bodako, han, Tolosan gendun, [...] esaten zaion lekun, calle Rondilla o calle Mayor, Tolosakoa, eta bodea, bazkarie ta ez zeukela juteik, gaixotu in zala. "Jo! Uain soiñujoleik ...", ez zeon oaingo aukeraik ordun, bakar batzuk bazeren baiño, jolin! Eta hango koiñata o koiñado ein behar zona nere kintoa zan, Buenabista baserrikokoa ta harek esan omen zon: "Sabinok joko dik, moteil,

guk ein behar deguna itteko!" ta Aldarretako horrek esan zin, geo Inaxio zeon horrek eta esan zin, soiñu berria zeuken ordun, Larriñagak zeak, Martzelino horrek, Donostin einda, hamar milla real, bi rejistrokin ta, trikitixa ta. "Hi, hau eaman zak" aitzen nintzen harrekin pixkat eta, "hau eaman zak,[...], berrie dakau gaiñea ta..." Han ai naiz [...] Auskalo ze joko nun, eta bazan hemen soiñujolea, Maria Luisa Irastortza, ta Tolosan bizi zan. Ta zea, [...] semekin eo ezkondata. Ta etxe hortan bizi, tabernea zeon etxe hortan goien, eta ikusten det ate txirristutik, ni ai nitzela, burue hola jarrita. Nire arten esan... Esango zun harek: "Ze ai ote da hori? Ze ai ote da?" Ezer ez nekin ta! Portugesiña ta, holako batzuk, nola eo hala, ta yasta, kito.

- Zeintzuk zien piezak?

- Portugesiña ta. Holako batzuk.

5. Inguruko soinu-jotzaileak

- **Erref:** ATA-014/009
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lehen soinu-jotzaile gutxi ziren inguruan. Haietako batzuen izenak aipatzen ditu. Lehengo garaietako gorabeherak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Ze esan behar nizun? Garai haitan, esan dezu soiñujole gutxi zala.

- Bai.

- Hemen ingurun zeintzuk ibiltzen zian, hola...?

- Ordun ibiltzen zien, bat zan Gaintzako Felix. Eerki jotzen zon, hemen, honeako e, organistea, ta [...] igeltseroa. Gero, Etxarriko itsue, Joxe, ona zan hue're! Hue Bitorrenen asko! Hoik zien. Nik hemen trikitilarik...

Aldakioko Joxe Ramon aitzen zan pixkat Aldarretan ta... Harrek poliki jotzen zon, baiño trikitixa ez zan... Onik ez non nik ikusi Tapia, Eleuterio Tapia.

Nee kintoa zan gaiñea, ta geo Burladan eon giñen "periodo de instrucción"

hiru hillabete. Joxe Oriá're bai. Eta ni Joxe Oriakin... Pedro, gue illoba, Olaberrin, ta esan zin: "Osaba!" ta "Zer dezu?" ta "trikitilaria billau behar diazu!" ta "Jo, nik ez dauket hola iñokin holako zeaik! Oriakin dauket,

harren telefonoa ta bauzket baiño..." Lagune non ta, hemen'e aitzen nitzan ni harrekin, Bitorrenea etorrita, [zaharrenen'e] ekarri non neoni egon nitzenen [zaharrenen] sekretario ta, harrekin jotzen neoni ta. Hots ein nion ta bai, etorriko zala Olaberria. Ta, bueno. [...] etortzen zat hortxe, lau t

´erdi, bostak alde hortan, begitatiek malkoa zeriola. "Zer dek Joxe?", esan nion ta "Nei soiñu jotzen eakutsi zin Ormazabal, Zumarragakoa, hil dala ointxe telefonoa hots ein ziek. Hik jo zak pixkat, nik erten in behar diat".

Han beste saio bat ein non. Eta bueno, zea, Bastida zan hango nausie, uain, gero zeon gaztea, ta harrek: "zu soiñujolea al zea?" ta "Ni ez naiz soiñujolea; ni naiz lardaskeroa!" esan nion. Ta "horrek baiño hobeto atzek eta bajuk-eta manejatzen dittuzu /manejatzeittuzu/", "Bai! ni ez bajuk eta ez altuk, batez!"

Hola ibilli naiz ni leku guztin ta gaiñea danen ibilli naiz... "hik hau egingo dek", "harrek hoi eingo dik" "Ein dezala harek", "esan Sabinoi"... Aiba la ospera... Nee bizi guztia hola jun da. Danen!

- Ba zeeze joko zendun, jendiak esaten zuneako...

- Besteik ez danen, “contigo Tomas” , baakizu zer dan, “cuando no hay más, contigo Tomás” lehenao esaten zuen ta. Hoi izaten zan; gaiñea hemen ez zan ordun aukeraik, e!. Gero, zea ere bai, Tarragona ere bai, Ta Pepe Andoain ta horik zien hemen soñujolek.

- Ta Lizartzako itsua ta...

- Lizartzako itsue gerogo hasi zan hori, gerogo.

- Gerogo?

- Bai. Ni soldauskan ezautu non Lesakako zea´re, Sanjurjo. Bai, bai, hamaika aldiz izaten nintzan ni, Bera-Bidasoan soldauska sei hillabete ta gehio ein nittun, ta ni juten nintzen, sumistroko kargue nik neuken. Eta Lesakan zeon panaderie Rekondo, Segurakoa zegon han ezkondata, panadero. Orduako labe jiratorioa zeon ta militarrek han eitten zuen. Harrek beak eitten zon aurrena ta geo militarrek. Ni juten nitzen suministron billa ta ogik-eta ein arte, ba, eon ein behar. Ta han ibiltzen nintzen ni, denboa pasa ta harren taberna jun, taberna txiki bat zeuken, eta... jotzen zon harrek´e! Geo han, anai gazteago bat bazeuken ta gero ikusi non harren fotografia, bea soñukin ta, zean, Larrinagara jun nintzenen soñu-arreglo batea. Ta horik ezautu nittun nik, bai.

6. Doinuak buruz ikasi eta txistuz jo

- **Erref:** ATA-014/011
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:18:04. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Lehen, soinu txikia jotzea ez zen arrunta. Doinuak buruz ikasi eta txistuz jotzen zituen.</p>

Transkripzioa

- Ta garai hartan soñu txikiya ere modernua bezela zan, ezta?

- Bai, baiño hemen jotzen gutxik zekien, e, gutxik. Hemen bakarren batzuk bazeren zeuzkenak, baiño, een kasa ikasitakok! Ez baitzan iñor eakusteko hemen ordun. Nik, Urtxuana juten niñun, menditi, e! Etxegaratea´re bai! Ta nik handik pieza Aldarretako horri ekarri nion, eta artzaien pieza zala esan zin batek han. “Ze pieza earra!” esan nion ta, “Artzaien pieza dek hori”, eta pianoko...

- Eta nun ekartzen zendun?

- Nik memorin ekartzen nun. Txistue jotzen nion gero, ahoko txistue. Ta hoi, handi ekarri niona zan... Hoi zan. Eta esan zon: “Baiño hau nundik hasi...?” esaten zin horrek, eta “ba nik ez dakit ba nundik”, pianokokin jotzen zuen ta! Zelaia´re ezautu det nik, Altsasuko Zelaia, Enrike Zelaia´re. Hoi ona zan, e!

7. Musikari formalak eta ez hain formalak

- **Erref:** ATA-014/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:21:49. **Bukatu:** 00:23:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Inguruko txistulariei buruz hitz egiten du. Txistulariek formal-ospea zuten; soinu-jotzaileak eta bertsolariak, ordea, etxe-galgarriak omen ziren.

8. Dantza lotuarekin, alkatea haserretu

- **Erref:** ATA-014/016
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ataunen ezin zen dantza lotua egin; baina behin dantza lotua egin zuten denek; eta, orduan, alkateak bandari ordaindu, eta herritik bidali zituen.

9. Gerra hasiera eta orduan etorritako zorigaiztoak

- **Erref:** ATA-014/021
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:29:52. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Hamar urte zituela hasi zen gerra. Gogoan du hasiera nola izan zen: pulpitutik eman zuten nafarren etorreraren berri. Orduko ihesaldiari, tiroei, zaurituei... buruz hitz egiten du. Belaunaldi gazteenetako mutilak gerrara eraman zituzten. Hainbat gaztek denbora luzea eman zuten militar gisa.</p>

10. Gerra aurreko hauteskundeak eta makiak

- **Erref:** ATA-014/022
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:33:05. **Bukatu:** 00:35:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Gerra aurreko hauteskundeetan izandako gorabeherak kontatzen ditu. Makien bila ibiltzen zireneko kontuak gogoan ditu.

11. Ibiltzeko baimenaren inguruko komeriak

- **Erref:** ATA-014/025
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:40:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Garai hartan, baimena behar zen batetik bestera ibiltzeko, eta behin izandako komeriak kontatzen ditu.

12. Gerraosteko otorduak

- **Erref:** ATA-014/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:40:59. **Bukatu:** 00:42:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, baserrietan, ogia jateko irina bazeukaten; baina kalean okerrago pasa zuten. Orduko otorduei buruz hitz egiten du.

13. Patataren etorrera

- **Erref:** ATA-014/030
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:46:31. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Lehen patata lur txarrenetan egiten zuten beraiek. Lehen patata ez zen egiten Ataun inguruan.

14. Mahoizko galtzen moda

- **Erref:** ATA-014/032
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:48:37. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Izebak josten zizkien arropak. Mahoizko galtzak izaten zituzten orduan; nolakoak izaten ziren azaltzen du.

15. Galtzerdiak lehertzeko sistemak

- **Erref:** ATA-014/033
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehengo oinetakoak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Galtzerdiak bustitzen zitzaizkienean, su gainean jartzen zituzten lehortzeko, eta gogor-gogor egoten ziren hurrengo egunean.

16. "Pues" esaten baino ez zekien erdaraz

- **Erref:** ATA-014/038
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:57:12. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaraz aritzea debekatuta zegoen, baina beraiek ez zekiten erdaraz. Eskolan ez zuten ezer ulertzen, dena erdaraz baitzen. Fabrikan lanean hasi zeneko anekdota kontatzen du.

17. CAF errepublika garaian

- **Erref:** ATA-014/040
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:59:02. **Bukatu:** 01:00:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>CAFeko langile asko kanpokoak ziren; baina bazeuden inguruko herrietatik etorritakoak ere. Errepublika garaian, CAFen kaleratzeak egon ziren; orduko kontuak kontatzen ditu.</p>

18. Maiorazkoa ala fabrikako lana?

- **Erref:** ATA-014/043
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:04:22. **Bukatu:** 01:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Maiorazkoa zuenak, garai batean, erraztasun gehiago zeukan ezkontzeko. Gerora, ordea, gauzak aldatu egin dira, emakumeek nahiago baitute kalean bizi.

19. Bere bertso bat

- **Erref:** ATA-014/045

- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:06:21. **Bukatu:** 01:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Berak asmatutako bertsoa abesten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com